



EBAZPENA, 2020ko AZAROAREN 13KO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, HEZKUNTZA SAILAREN MENPEKO IKASTETXE PUBLIKOETAN SUKALDARITZAREN ALDI BATERAKO PREMIAK BETETZEKO ZERRENDAK IREKITZEN DITUENA.

Arrazoi desberdinengatik ikastetxe publikoetan dauden premiei arreta emateko, ikastetxe publiko horietan zerbitzuak emateko sukaldaritzako zerrendak integratzen dituzten pertsonen kopuru handi bat du, duela urte asko, Hezkuntza Sailak. Indarreko hitzarmen kolektiboaren (2009ko martxoaren 31ko 62. Zk.ko EHAA) III. Eranskinak eta berau aldatzen duen 2019ko abenduaren 17ko Negoziazio Mahaiaren Akordioak ezartzen ditu zerrenda horiek kudeatzeko erregimena eta baldintzak.

Hala ere, zerrenda horiek integratzen dituzten pertsonen kopurua eta benetan libre dauden pertsonena ez datoz bat. Izan ere, 2015. urtean hiru lurralde historikoetan eta 2018. urtean Gipuzkoako zenbait zonaldeetarako zerrendak ireki ziren arren, zerrenda horiek integratzen dituzten pertsonen beste lan-eskaintza batzuk izan dituztelako edo mota desberdinetako zirkunstantziengatik, gero eta jende gutxiago dago Sukaldaritzan ordezkapenak egiteko libre eta erreserban dauden giza baliabideak egotearen inpresio faltsua ematen da; izan ere, haien eskubideak babesteagatik, ez zaizkie zerrendetatik kentzen, baina ez daude libre. Horregatik guztiarengatik, gaur egun Sukaldaritzako zerrendetan dauden pertsonen kopurua ez da nahikoa. Horretaz gainera, horri 2020/21eko ikasturtearen hasieratik sortu diren premiak gehitu behar zaizkio (gaixotasun-bajak, aukera-egunak eta COVID-19a dela-eta jarri beharreko errefortzuak, esanguratsuenak bakarrik aipatze aldera). Horregatik, gaurko zerrendak ez dira, estrukturalki, ikastetxeen eskaerei aurre egiteko nahiko, gainera, errepikatu edo pilatu egiten direnean behar bezalako funtzionamendua oztopatzen dute.

Analisi horrekin bat etorruta, Bizkaiko Gipuzkoako eta Arabako zonalde guztietan sukaldaritzako zerrendak ireki behar direla dioen planteamenduarekin bat datoz Administrazioa eta sindikatuak; izan ere, prestutasuna toki guztietan berdina ez den arren, gero eta handiagoa da eskaera eta horrek eremu guztietan libre dagoen pertsonalaren erreserba bat izatera behartzen du.

Halaber, sukaldaritzako zerrendetara sartzeko baldintzek 2015. eta 2018. urteetan ireki ziren zerrendetarako berberak izan behar dutela bat datoz aldeak, hots, eginkizun horren izaeraren eta arduraren arabera baldintzak (oinarrizko osasun- eta higiene-arauetan trebezia izatea, elikagaien kontserbatze eta manipulazioan ezagutza izatea, trebea izatea elikagaiak prestatu eta aurkezteko orduan, higiene eta elikagaien aldeko kultura izatea ...), jarduera horri lotutako arriskuak saihesteko edo azken muturrera minimizatzeko eta jarduera exijitzeko moduko kalitate- eta segurtasun-estandarren arabera gauzatuko dela bermatzeko.

Administrazio honek kolektibo horrentzako garbiketa- eta sukaldaritzako lanpostuetarako deitzen dituen aukeratze-prozesuen ondoriozko zerbitzurik gabeko zerrenden subsidiarioak izango dira zerrenda horiek. LEPren beste deialdi bat egiten bada, zerrenda hauek desagertuko dira, eta LEPren ondoriozko zerbitzurik gabeko zerrenda berriak sartuko dira indarrean. Zerrenda horiek ordenatzeko era ireki ondoren, izen-deituren alfabeto-ordenaren arabera ordenatuko dira, sektore guztietan deiak egiten hasteko letra zehazte aldera. Zonalde mailako zerbitzurik gabeko zerrendara sartuko da, dagoeneko dauden zerrendaren atzetik.

Ebazpen honen aurretik, Negoziazio Mahai bat egin zen, 2020ko azaroaren 11n. Bertan, Administrazioak eta sindikatuak zerrenden irekiera aztertu zuten, eta eztabaidatu zuten deialdi honetan barneratuta dauden elementuetako bakoitzari buruz.

Azaldutakoaren arabera eta legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

1.- Irekitzea. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zonalde guztietan sukaldaritzako zerrendak irekitzeko agindua ematea; izan ere, indarreko hitzarmen kolektiboan agertzen dira zonalde horiek (Internet bidez bete beharreko formularioan jasota agertzen dira).



2.- Titulazioa eta baldintzak.

2.1. Baldintza orokorrak. Oro har, urriaren 30eko 5/2015 legegintzako errege dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duenak, agertzen dituenak 56. artikuluan:

- a) Nazionalitate espainola izatea, 2.4. atalean xedatutakoaren kalterik gabe.
- b) Eginkizunetan aritzeko gaitasun funtzionala izatea.
- c) Hamasei urte beteta izatea eta beharturiko erretiroaren adina ez gainditzea. Legearen arabera bakarrik ezarri ahal izango da, enplegu publikora sartzeko, beharturiko erretiroaren adina ez den beste gehienezko adin bat.
- d) Edozein administrazio publikotako edo Autonomia Erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetako zerbitzutik diziiplina-espediterearen bidez kendu ez izana; funtzionarioaren kidego edo eskalara sartzeko eta kidego edo eskala horretan enplegu edo kargu publikoetan aritzeko ebazpen judizial baten bidez erabateko inhabilitazio- edo inhabilitazio bereziaren egoeran ez egotea; lan-legepeko pertsonalaren kasuan, antzeko funtzioetan aritzeko inhabilitatuta ez egotea. Beste estatu bateko herritarra bada, inhabilitatuta ez egotea, antzeko egoeran ez egotea eta estatu horretan diziiplina-zigorren edo antzeko egoeraren pean ez egotea, zigor horrek enplegu publikora sartzeari eragozten badiu.
- e) Exijitutako titulazioa izatea.

2.2. Oinarriko titulazioa. Eskolatze-ziurtagiria edo baliokideren bat, edo eskola-graduata edo baliokidea, edo DBHko graduata edo baliokidea, edo titulazio handiagoa izango da sukaldaritzako zerrendetara sartzeko exijitzen den oinarriko titulazioa

Titulazio hori egiaztatzeko dokumentazioa ezin badu formularioarekin batera aurkeztu, horretarako argitaratu diren argibideak ikusi ("Informazio garrantzitsua").

2.3. Gainera, sukaldaritzako zerrendetara sartzeko, ondorengo bi baldintzetako bat, gutxienez, betetzea exijituko da:

- **Esperientzia profesionala:**

Sukaldariaren kategorian hiru hilabete baino gutxiagokoa izango ez den esperientzia profesional bat formalki, kontratuaren eta lan-bizitzaren bidez (biak dira beharrezkoak), egiaztatzea.

- **Prestakuntza:**

Era alternatiboan, sukaldaritzako prestakuntza-ikastaroak (biltegiatzea, kontserbazioa, prestatu eta egitea, elikagaien higiena, nutrizio-ohiturak ...) egin izana egiaztatzea. Ikastaro horiek ezin dira 50 ordu baino gutxiagokoak izan eta organismo ofizialek edo prestakuntza hori emateko Administrazioaren behar bezalako baimena duten erakundeek eman beharreko ziurtagiri edo diplomaren bidez egiaztatu beharko dira.

2.4. Nazionalitate espainola ez badu, ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu, urriaren 30eko 5/2015 legegintzako errege dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duenak, 57. artikuluan xedatutakoaren arabera:

2.4.1. Europar Batasuneko herritarra izatearen erregistro-ziurtagiria: eskatzailea Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko herritarra bada.

2.4.2. Egoitza-baimena indarrean eta lan egiteko baimenarekin: eskatzailea beste estatu bateko herritarra bada.

2.5. 2. puntu honetan adierazitako baldintza guztiak deialdia ixten den datan (eskaerak egiteko epearen bukaeran) bete beharko dira.



3.- Eskaera eta geroagoko aldaketak aurkezteko prozesua.

Internet-en bidez bakarrik egingo da, <https://irakaslegunea.euskadi.eus/eu/> web orrian eskura dagoen formularioa betez.

<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/> web orria (Atala: Lan-arloak→ Langileak→ Ordezkapenentarako izangaiak→ Irakasleak ez diren langileak) izango da deialdi honen helburu diren Sukaldaritzako aldi baterako zerrendak direla-eta ematen diren ebazpenak eta hartzaile anitzetako egintzak argitaratzeko edo jakinarazteko bitartekoa.

Eskaeran agertzen diren helbidea, telefonoak eta posta elektronikoa baliagarritzat joko dira jakinarazpenen ondorioentarako eta, datu horietan aldaketak gertatuz gero edo eskaeran dagoen edozein datu gaizki idatzita egonez gero, eskatzaileak izango du zirkunstantzia horiek Hezkuntza Ordezkaritzako Pertsonal ez Irakaslearen Zerbitzuari jakinarazteko ardura bakarra.

Formularioan agertzen diren datuak abenduaren 5eko 3/2018 legeak, datu pertsonalak babestearenak eta eskubide digitalak bermatzearenak, xedatutakoaren arabera erabiltzeko baimen espresua ekarriko du formularioa betetzeak. Izaera pertsonaleko datuen fitxategi batean sartuta egongo da informazioa eta une orotan erabili ahal izango dira datu horietara sartzeko, zuzentzeko, ixteko eta aurkatzeko eskubideak, lege horrek eta garatzen duten gainontzeko arauak xedatutako terminoetan.

4.- Eskaerak eta dokumentazioa.

4.1. Deialdi honetan parte hartzeko interesa duten pertsonak formularioa <https://irakaslegunea.euskadi.eus/eu/> web orrian Internet bidez bete behar dute.

2020ko azaroaren 16ko 00:00etatik azaroaren 20ko 23:59ra artekoa izango da eskaera formularioaren bidez egiteko epea.

Formularioarekin hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

-NANA edo beste edozein nortasun agiri (Europar Batasuneko herritarren erregistroaren ziurtagiria edo lan egiteko baimena duen bizileku-baimena).

-Deialdi honetako 2.2 eta 2.3 atalean eskatutako dokumentuak.

Dokumentazio hori X bat markatuz badutela alegatzen duten arren formularioa betetzeko orduan aurkeztu ez duten eskatzaileak behin-behineko ebazpenean ez onartutakoen artean agertuko dira. Ebazpen horren kontra erreklamazioak aurkezteko epean izango dute falta zaien dokumentazio hori aurkezteko aukera.

4.2. Premia bat betetzeko ordezkapen baterako deitu bazaio eskatzaileari eta onartu badu, ondorengo 5 egunetako epea izango du formularioarekin batera aurkeztutako dokumentazioaren kopia konpultsatua aurkezteko. Behin-behineko ebazpenean konpultsatu beharreko dokumentazio hori aurkezteko era zehaztuko da. Dokumentazio hori epean aurkeztu ezean, ez zaio zerrendentarako berriro deituko eta indarrean dagoen kontratuak bukatuko du.

4.3. Formularioa bakarra izango da, lurralde historiko bat baino gehiagoko zonaldeak eskatu arren.

4.4. Nahi adina zonalde markatuko dira eta guztientarako libre egoteko konpromisoa hartuko du eskatzaileak. Izan ere, aukeratutako edozein zonalderi justifikaziorik gabe uko egiten badio, zerrenda eta zonalde guztietatik berehala kenduko zaio.

4.5. Deialdi horren bidez zerrendetan integratzeak aukeratutako zonaldeetan eskaintza guztiak, lanaldi osokoak eta lanaldi partzialekoak, onartzeko konpromisoa ekarriko du (2021/2022ko ikasturterako birbarematzea izan arte jarraituko du egoera horrek; izan ere, zerbitzuak eman dituzten ordezko gai berriek hartuko dute lehen aldiz birbarematze horretan parte).



4.6. Deialdi hau egin aurretik Hezkuntza Saileko Sukaldaritzako zerrendetan daudenek ezingo dute deialdi honetan parte hartu.

Halaber, diziplina-espeditente baten ondorioz sukaldari-lanpostu batetik kaleratuak izan ziren pertsonak ezin izango dute parte hartu, ezta, sukaldari-lanpostuan aritzeko gai ez izateagatik, probaldia gainditu ez zutenek ere.

5.- Onartutako eta kanpoan utzitako pertsonala.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez emango da onartutako eta kanpoan utzitako pertsonalaren behin-behineko zerrenda argitara. COVID-19ak eragindako aparteko egoerarengatik, behin-behineko ebazpena argitaratu ondoren, onartutako pertsonari deitzen hasi ahal izango da.

Erreklamazioa aurkeztu ahal izango da onartutako eta kanpoan utzitako pertsonen behin-behineko zerrendaren kontra, 10 eguneko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Epe horretan, alegatu den arren behar bezala egiaztatu ez den dokumentazioa aurkeztu ahal izango da. Erreklamazioak ebatzi ondoren, zerrendak integratuko dituzten pertsonen behin-betiko zerrenda beste ebazpen batean emango da argitara. Une horretarik aurrera ez da Sukaldaritzako ordezkapenak egiteko ordezkogaien behin-behineko zerrenda erabiliko.

6.- Zerrenden hurrenkera.

6.1. Zerrenda bana izango da zonalde bakoitzeko eta onartutako pertsonal guztiaren hasierako hurrenkera alfabeto-ordenaren arabera egingo da (izen-deituren arabera). Urtero zozketaz erabakitzen den letra ("V" letra da 2020/21eko ikasturterako) erabiliko da eta letra hori, beraz, 2020ko irailaren 1etik aurrera egingo den deialdi guztietan hartuko da kontuan.

6.2. Hasierako barematzea. Deialdi honen bidez zerbitzuak ematen hasten den pertsonalak lehenengo aldiz hartuko du 2021eko apiril/maiatzeko birbarematzean parte, 2021/22ko ikasturtearen ondorioetarako.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita eta urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetarako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 13a

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Blanca Maria Guerrero Ocejo